



J. Uriaren «La sidra» liburuko argazkia. (Sendoa argitaletxea)

# Berriz ere martxan sagarrondo kanpaina

**G**IPUZKOAKO Foru Diputazioak sagardotarako sagarrondoaren landareketarako kanpainarekin jarraituko du aurten ere. Azken urteotan egin duen bezalaxe Diputazioak beraien urretan sagar landareak jarri nahi dituztenentzat dirulaguntzak zabalduko ditu. Laguntza hoiak jasotzeko gutxienezko baldintza batzuk bete beharko dira.

Landareak Diputazioaren «Zubieta Landetxea» Hondarribiko Mindegietan erosi beharko dira, bakoitzaren salneurria 400 pezetakoa delarik. Diputazioak teknikoek landaketa jarritako baldintzen arabera burutu dela konprobatzen dutenean, landareen zenbateko osoa itzuliko du. Dozena bat baldintza dira. Besteak beste, landaketa Gipuzkoako lurraldean egin beharko dela eta sailean gutxienez 80 arbola aldatu behar direla aipatzen dira.

Sagasti berrietan ezingo da inolako ganadu motarik larretu. Jabeak bere txertaketa proiektuak egiten dituen bitartean, landaketa subentzionatua izan dadin, egin aurretik Diputazioak kontrolatu egin beharko du txertagaia. Landare eskaera, horretarako egongo diren izen-emate orriarekin, Hondarribiko Zubieta Etxaldean, Foru Diputazioako Nekazal Sustaketa Zerbitzuan eta Eskualdeetako Nekazal Bulegoetan egin daiteke.

Landaketa egin ondorengo urteetan sagastiak behar bezala zaintzeko, gomendapen batzuk ematen ditu Diputazioak kanpaina honen barruan. Hoietakoa bat landaketa egin ondorengo bost urteetan landarea inguratzen duen lursaila jorratua mantentzea da, gutxi gora behera sustraiek hartzen duten zabalera guttia harrapatuz.

Dirulaguntza izandako landarez aldatutako sagastietarako, aldaketa egin eta hirugarren urtetik aurrera dirulaguntza berri bat, bigarre-

na, jaso ahal izango dute, baldintzak bete diren kasuetan behintzat. Aurretik, Diputazioako pertsonal teknikoak sagastia nola zaindu den ikusteko bisita egingo du bertara.



**Zer egin mizpirekin?** Hasiak dira mizpirak. Ez onenak hala ere; izotzak hasi eta gero gozaten bait dira frutaok. Mizpirak orain inguratu ezker, hobe da puska batean kanpoan edukitzea, lasto gainean ahal dela, harik eta ondo bigundu arte. Mizpirondoa den etxeetan mermelada egitea komeniko da beharbada. Hala nahi izan ezker, hauxe egin behar da: jarri mizpirak uretan, jarri ontzia sutan, ez oso su bizian, eta eman irakinaldi txiki bat; piska bat bigundutakoan, atera handik, lehortu daitezela, eta ondoren hezurra kendu; gero guztia pasapurretik pasa behar da. Hurrengo pausoa azukrez nahastea da: kilo bakoitzeko 750 gramo azukre; eta berriro ontzi batean sartu eta surtara. Handik aurrera hogeita bost minutuz egon behar du irakiten.

ZAPOREA	PATROI FRANKOEN TXERTATUAK	PATROI KLONALEAN TXERTATUAK		
		EM 7	MM 106	MM 111
GARRATZAK	Haritza Goikoetxea Merkalin	Goikoetxea Ugarte	Goikoetxea Buztin	Palazio
MITKATZAK ETA GAZI-COZOAK	Berrondo Bost Kantoi Errezila Frantzes Manttonia Pelestiña Txalaka Udare Urdin Urtebi Verde Agria	Bost Kantoi Errezila Manttonia Txalaka Udare Urdin Verde Agria Pelestiña Urtebi txiki	Bost Kantoi Errezila Manttonia Frantzes Granny Smith Pelestiña Txalaka Urdin Urtebi txiki Verde Agria	Bost Kantoi Errezila Manttonia Txalaka Urdin Urtebi
GOZOAK ETA GEZAK	Maximela Mozolua Patzulua Petrokillo Txoria	Mozolua Patzulua	Mozolua Patzulua Txoria	Maximela Mozolua Patzulua